

Alemaniano Magnesium Innovation Centre-ren Bisita

2008/07/04

Iñaki Hurtado, Dietmar Letzig eta Achim Wendt doktoreak

Geesthacht-en (Alemania) kokatzen den GKSS-Forschungszentrum-eko MagIC-en (Magnesium Innovation Centre) forja magnesio aleazioen taldeko bi kideren bisita izan genuen Mondragon Goi Eskola Politeknikoan: Dietmar Letzig doktorea eta taldeko arduraduna, eta Achim Wendt doktorea. Bisitaren helburua bi erakundeen artean lankidetzaren harremanak abian jartzea izan zen. Ikerlarien arteko trukeak zehaztu ziren eta baita europar proiektuak ere GKSS eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoko Materialak Konformatzeko Prozesu Aurreratuen taldearen artean.

